

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Udal honek, 2022ko urtarrilaren 13an udalbatzak egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari, hura Gobernu Kontseiluaren azaroaren 16ko 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretura moldatzeko. Dekretu horren bidez, zerga honen inguruko foru araudia aldatu da, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaia moldatzeko.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Legeak 16.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erabaki hau jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliiodunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko behin betiko erabaki bihurtuko da, beste inongo erabakiren beharrik gabe, eta aldatutako testua ALHAOn argitaratuko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Araia, 2022ko urtarrilaren 14a

Behin-behineko alkatea
INMACULADA ALBIZU FUENTES